



PASAI ANTZO ATEZ ATE:

**HERRITARREN FORMAIZORAKO, INFORMAZIORAKO ETA
EKARPENAK JASOTZEKO PROZESUA, 2013**
PROCESO DE INFORMACIÓN, FORMACIÓN Y APORTACIONES
CON LA CIUDADANÍA, 2013

SAIOAREN AKTA **ACTA DE LA REUNIÓN**

BILERAREN XEHETASUNAK/ DETALLES DE LA REUNIÓN:

Bilera zenbakia/Número de reunión : 2.
Xede taldea/Grupo de trabajo : Euskarazko taldea
Data : 2013-XII-4

Lekua/Lugar: Kultur Etxea
Hasiera ordua/Hora de inicio: 19.30
Amaiera ordua/Hora de finalización: 21.00

DINAMIZAZIOA/ DINAMIZACIÓN

Alkatea/Alcaldesa: Amaia Agirregabiria
Zinegotzia/Concejal: Izaskun Biurrun (Antxoko alkateordea)
Dinamizatzailea/Dinamizador: Arkaitz Martinez de Albeniz
Parte hartzaile kopurua/ Número de participantes: 31(13 emakume eta 18 gizon)



1. ONGI ETORRIA ETA AURKEZPENA/ *BIENVENIDA Y PRESENTACIÓN*

Alkateak bertaratutako herritarrei ongi-etorria eman die, eta gaurko saioa martxan jarri den prozesu honen bigaren errondan kokatu du. Mahaian dauden udaleko kideak eta aholkulariak aurkeztu ditu.

2. BILERAREN AURKEZPENA ETA PROZESUAREN LEHEN ERRONDAN LANDUTAKO EDUKIEN ERREPASOA/ *PRESENTACIÓN DE LA REUNIÓN Y REPASO DE LO TRABAJADO EN LA PRIMERA RONDA DEL PROCESO*

Aztikerreko dinamizatzailleak saioaren egitura zein izango den azaldu du lehendabizi: iraupena, landuko diren gaiak eta metodologia.

Ondoren, prozesu honen lehen fasearen laburpen bat egin du; saioetako eduki aipagarrienak errepasatu ditu. Jasotako iritziak, ekarpenak eta proposamenak gaiaren arabera multzokatuta aurkeztu dira.

3. SISTEMA EZARTZEARI BURUZKO INFORMAZIOA/ *INFORMACIÓN SOBRE LA APLICACIÓN DEL SISTEMA*

Antxoko alkateordeak sistema berria martxan jartzeak eragingo dituen aldaketak aurkeztu ditu ondoren. Ezaugarri garrantzitsuenak lehen errondako aurkezpenetan aipatu arren, oraingoan ezaugarri eta xehetasun batzuetan gehiago sakontzeko tarte hartu da. Horretaz gain, lehen errondako saioetan gehien aipatu diren zalantza eta kezken erantzunak ere eman ditu.

Aurkezpena amaitutzat eman ondoren, galdera-erantzunetarako tartea ireki da herritarren artean. Bilketa sistema berria martxan jartzearen inguruan sortutako kezka, azaldu ez diren edo ulertu ez diren gauzak galdetzeko tartea izan da honakoa.

Egindako galderak eta hauen erantzunak hurrengo lerroetan jasoak datoz:

- Nola kontrolatzen da ekarpen gunea erabiltzen dutenek ondo edo gaizki egiten duten? Erabiltzaileak ondo egitera behartuta daude, baina ez da jarraipen zuzenik egingo ekarpen guneak giltza utzi zaion pertsonak ondo birziklatu duen edo ez ikusteko.
- Zer gertatuko da altxariek? Altxarien kasuan berdin gertatzen da, ez da kontrol sistema berezirik jarriko. Gaur egun edukiontzien ondoan utzi behar dira altxariak, eta nahiko modu desordenatuan ateratzen dira, nahi den egun eta orduetan; badirudi babesa ematen duela edukiontzien ondoan uzteak. Baina aurrerantzean ez direnez edukiontzia egongo, herritarrek txukunagoak eta zorrotzagoak izateko ahalegina egingo dutelakoan gaude.
- Eskalantegiren kasuan, aurreikusitako edukiontzia lepo beteko direla? Hori neurtzeko, Antxoko zein Donostiako aldeko herritarrak ezin dira derrigortu ondo egitera? Nola kudeatuko da hori? Hemendik aurrera Eskalantegin dauden edukiontzien kudeaketa Donostiako Udalaren eskuetan geratuko da, Pasaiako Udalak ez du bertako hondakinak jasoko eta, beraz, Donostiako Udalarik tokatuko zaio hemendik aurrera edukiontzia horien kudeaketa egokia egitea.
- Antzeko kasuetan, atez atekoa jarri duten herrien muga horietan neurri berezirik hartu da? Astigarraga eta Martuteneko muga jartzen da adibidez. Neurri berezirik ez da jarri kasu horietan. Hala ere, kontuan hartu beharra dago Donostiako Udalarik ez zaiola interesatzen gaur egun jasotzen duena baino hondakin gehiago biltzea, azken batean, hondakin horietatik gero ordaindu egin beharko baitu (zabortegian, esaterako).
- Herritar batek aipatzen du Donostiako aldean dauden 'Villetako' biztanleek ez dutela hondakinak tasarik ordaintzen. Donostiako Udala etxerako lanekin berandu dabil. Duela urte gutxi arte edukiontzia berdea besterik ez da egon Donostiako aldean, orainoan ere Pasaiak aurrerapauso bat emango du hondakinak kudeaketan, eta Donostiako Udala atzetik doa.
- Aukeratu daiteke norberak nahiago duen esekitokia edo lokala? Beti ere ordutegia, etab. kontuan hartuta? Hasiera batean, egokia ikusten den kasuetan esekitokiaren sistema hobetsi da. Esekitekientzat tokirik ez dagoen kasuetan bilketa lokal baten bitartez egitea proposatzen da, beraz, esekitokia proposatzen de tokietan esekitekien bitartez egin beharko dute. Hala ere, sistema malgua dela esan den heinean, arazoren bat dutenei (ordutegiengatik ezintasunak, etab.) konponbidea emateko prest dago Udala. Abenduaren 17tik aurrera banatuko diren fitxen bitartez joango dira hori guztia zehazten. Gerta daiteke, aurrerago, lokalak ondo funtzionatzen badu eta herritarrek hala nahi izanez gero, hirugarren lokal bat egokitu eta beste herritar talde batek ere esekitekien ordez lokala erabiltzeko aukera izatea. Baina momentuz, bi lokalak bakarrik jarriko dira ekarpen guneak, bilketa modu hau berria baita; orain arte halako esperientziarik ez dagoenez, bi horietan bakarrik egingo da proba.
- Esekitekian eguneko gaia jartzeko ordutegia badago, baina kentzeko edo jasotzeko? Momentuz, berez, ez. Beste kasu batzuetan egun guztian zehar kuboa edo poltsa jasotzeko aukerarik ez duenak, bere bizilagunak jasotzen dituzte, esaterako. Baina ez dago jasotzeko irizpide zehatzik.
- Zenbat poltsa banatuko dira? Famili edo etxebizitza bakoitzeko gai bakoitzeko poltsa bana banatuko da. Galdu edo hautsiz gero, bulegora jo eta beste bat emango da, kobratu gabe. Bulegoa astean zehar egongo da irekita: egunero goizez eta astelehen eta asteazkenetan arratsaldean. Merkatuan egongo da bulegoa eta abenduaren 17tik aurrera irekiko da.

4. **LANTALDEAK: ERABAKIGAIEN INGURUKO EZTABAIDA ETA ERABAKIAK/GRUPOS DE TRABAJO: DEBATE Y ACUERDO DE LOS TEMAS A DECIDIR**

Galdera erantzunen tartearekin amaitu denean, bigarren erronda honetan eztabaidagai eta erabakigai diren puntuak lantzeari ekin zaio. Horretarako, talde txikien dinamika erabili da: parte-hartzaileak hiru talde txikitan banatu eta erabakigai bakoitzeko fitxa bat banatu zaie, Antxoko plano edo mapa bat ere eman zaie laguntza moduan.

Guztira 30 minutu izan dituzte talde txikitan eztabaidatzeko eta ondoren, talde bakoitzeko bozeramaileak guztien aurrean aurkeztu ditu bere taldean hitz egin eta eztabaidatutako edukiak.


Hurrengo orrietako koadroetan ikus daitezke egin diren ekarpen guztiak, taldeen arabera sailkatuak.

A. ORDUTEGIA

Udalak bi ordutegi proposamen ezberdin egin ditu, bata esekitokientzat, eta bestea, berriz, lokalentzat. Ordutegi proposamenak honakoak dira:

1. Esekitoriak: 19:30etik 22:30era
2. Lokalak: 7:00etatik 10:00etara

Parte-hartzaileei proposamen hau baloratu eta ekarpenak egiteko eskatu zaie.

ESEKITOKIAK	
BALORAZIOA	PROPOSAMENAK
<p>1. Proposamena egoki ikusten da, hala ere, aldaketa proposamen batzuk egin dira.</p>  <p>19:30ean hasia egoki baloratu da.</p> <p>2. Gau osoa esekitoriak kalean egoteak zalantza sortu du talde honetan.</p>	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ordutegia luzatu, beranduago arte ateratzeko aukera eman, batez ere udan. 2. Talde honek aipatzen du udan goizegi izan daitekeela 22:30ean amaitzea; beranduago jaisteko aukera ematea proposatzen dute. 3. Aurreko proposamenekin bat, udako eta neguko ordutegia jartzea izango litzateke aukera bat. Goizean jaso behar bada, gau guztian zehar ateratzeko aukera eman.

LOKALAK	
BALORAZIOA	PROPOSAMENAK
	<ol style="list-style-type: none"> 2. Lokalak goizago irekitzeko aukera kontuan izan, lanera doazenen ordutegiak baloratuta. 3. Aurreko proposamenarekin ere ados daude talde honetako partaideak, goizeko 6:00etan agian, fabrikako ordutegiak aintzat hartuta.

B. AUZOKONPOSTA

Antxon autokonposta egiteko ia aukerarik ez dago; hori dela eta, auzokonposta sustatzeko erabakia hartu dute, hau izango baita organikoa hondakinen ziklotik ateratzeko dagoen aukera bakarra. Auzokonpostak Antxon dituen aukerez galdetu da taldeetan.

Aukerak ikusten dituzu Antxon Auzokonposta egiteko?

3.Herritarrei aukera eman beharko litzateke auzokonposta egiteko.




Zein izan daite(z)ke kokaleku egokia(k)?

1. Badiaren erdian, txatarraren gainean.
3. Luzuriagako parkean, edo DIAren inguruko etxeetan, edo errekaen beste aldean.

D. ALTZARIEN BILKETA

Altzarien bilketaren inguruko erabakiak hartzeko honako galderak egin dira:


1. Zein irizpide hartuko ditugu kontuan altzarien bilketa guneak kokatzeko?
2. Zeintzuk izango dira kokaguneak?

	IRIZPIDEAK	KOKALEKUA
	<p>2. Ez daitezela zokoetan jarri. Erdigunea, Zumardia eta frontoi ingurua libre uztea izan daiteke kokalekua adosteko irizpide bat. Goizean goiz jaso eta gauean ahalik eta beranduen uztea altzariak.</p> <p>3. Gune argitsua eta irekia izan beharko litzateke, leku ilun eta ezkutueta edozein gauza botatzen baita, eta asteko edozein egunetan botatzeko aprobetxatzen dute. BMren parean esaterako, egunero daude altzariak.</p>	<p>1. Beira edukiontzia ondoan jaso.</p> <p>2. Jaisteko egun eta ordutegia zehaztu eta betearazi beharko litzateke. Udan, argitasuna kontuan hartuz, ordutegia pixka bat atzeratzea ere proposatzen da.</p> <p>3. Aukera badago, kontrol handiagoa jartzea proposatzen da.</p>

E. BEIRAREN BILKETA

Udalak, hasiera batean, ez dauka proposamen zehatzik beiraren bilketarako edukiontziak lekuz aldatzeko. Hala ere, hauen egungo kokagunea aztertu eta aldatzeko proposamenak jaso nahi ditu. Horretaz gain, bilketa puntuak gehitu edo gutxiagotzeko proposamenak jasotzeko ere prest agertu da. Galderak honakoak izan dira:

1. Zein irizpide hartuko ditugu kontuan beiraren bilketa guneak kokatzeko garaian?
2. Zeintzuk izango dira kokaguneak?

	IRIZPIDEAK
	<p>1. Beira gehien sortzen duten guneetatik gertu jarri beharko lirateke edukiontziak, besteak beste tabernetatik gertu. Beste alde batetik, banaketa orekatua izan beharko dute edukiontzi hauek Antxon zehar.</p>
	KOKALEKUA
	<p>1. Momentuz egungo kokalekuetan mantentzea proposatzen da.</p> <p>2. Lehenengo taldeak egindako proposamenarekin ados daude.</p> <p>3. Aurreko taldeekin ados agertzen dira.</p>

F. SISTEMA BERRIAREN EZAUGARRIAK

Galdera honen bitartez, aukera zabaldu da, sistema berriaren inguruan proposamenak egiteko, sistema hobetzeko ekarpenak proposatzeko, zein sistemaren beraren balorazioa egiteko.

BALORAZIOA	PROPOSAMENAK
<p>1. Egun ezberdinetan jaitsi behar denez, lokala edo esekitokia izan, nahasgarria izan daiteke.</p> <p>2. Arropa eta olioja jaisteko puntu bakarra dago Antxo osoan, oso eskas geratzen da.</p>	<p>2. Arropa eta olioarentzat ekarpen guneak aprobetxatu daitezkeela proposatzen da.</p>

G. NEURRI ZUZENTZAILEAK

Donibaneren kasua aurkeztu da Udaletik lehendabizi, bertan erabakitakoa onetsi eta modu berean egin edo aldaketak proposatzeko.




- Lehen 6 hilabeteetan isunik ez jartzea erabaki zen Donibanen, probarako hilabeteak izango balira bezala. Sei hilabeteak pasa ondoren hasiko dira isunak jartzen, baina jarri aurretik lehendabizi ohartarazpenak egingo dira, ez da lehendabiziko aldian isuna jarriko zuzenean. Zenbait ohartarazpenen ondoren jarriko da lehen isuna.

Zeintzuk izan beharko lirateke neurri zuzentzaileak edota isunak jartzeko irizpideak?
Zein epetan jarri beharko lirateke martxan neurri hauek?
<ol style="list-style-type: none">1. Oro har, egoki ikusten da Donibaneko proposamena. Zalantza sortzen da denbora gehiegi ez ote den.2. Egunero-egunero saboteatzen duten herritarrei isuna jartzeko 6 hilabete itxaron behar ote diren zalantza sortzen da.3. Taldeko partaide batek bere iritzia eman du: gazteleraizko taldean egondako jarrerak ikusita, hasieran pentsatu zuen multa bidez derrigortzea izan zitekeela egokiena, baina ondoren pentsatu du askoz hobe dela momentuz isunik ez jartzea.



5. SAIOAREN AMAIERA ETA BALORAZIOA/ FINAL DE LA SESIÓN Y VALORACIÓN

Saioa amaitzeko, azken datak gogoratzeaz gain, aurreko saioan egin zen moduan, balorazioa egiteko eskatu zaie herritarrei. Horretarako, aurpegitxoen dinamika erabili da.

	Bilerako giroa	Erabilitako metodologia	Landutako edukia
	XXXXXXX XXXXXX	XXXXXXX XXXXXX	XXXXXXX XXXXXX
			
			


Saioa amaitutzat eman da Pasai-Antxon, 2013ko abenduaren 4an, 21:10ean.

HURRENGO HITZORDUA:

DATA: abenduaren 16an

LEKUA: Kultur Etxea

ORDUA: 19:30



Mila esker guztioi zuen ekarpenengatik!

*iMuchas gracias a todos y a todas por
vuestra aportación!*